




debilen harriari...

...no gather moss

apirila / maiatza
april / may
03

the balde



0€

03



the balde

marzelo zelaieta 75
13. bulegoa
31014 iruñea

t. +34 948. 12.19.76
info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 686.48.59.76

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin. komunikazioa eragin sll
editore / editor: iñigo martínez

zuzendari / director: césar ekisoain

zuzendari komertziala /commercial director: arkaitz billar
talde eragilea / promoters: koldo almandoz, arkaitz billar, césar ekisoain, martin etxauri, unai abarzuza, txuma vazquez, iñigo martinez
diseinua / design: martin etxauri, unai abarzuza, txuma vazquez, sonia beroiz, juan luis napal

itzulpenak/ translations: smiley, miren etxenike

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: kirmen uribe, asier leoz, koldo almandoz, makala, blanca oría, xabier gantzarain, iker trebiño, igor errazkin, asier errazkin, matías las palas, roberto herreros, xabi sagardia, leire bergara, peio agirre, berta osés, maría solana, itziar suárez, mielanjel elustondo

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: uxue montero, conny beyreuther, galder izagirre, alberto polo, phil collins

ale honetako komikia / comic this issue: txo!?

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01



18



MOBY-k prest dauka "play"-ren hurrengoa

Moby bere estudio lan berriari azken ukituak ematen ari zaio. Bere aurreko izan zen "Play" izenekoak lortu oihartzun berbera eragin nahian, musikariak ia prest dauka "18" izeneko diskoa. Izenburuaren atzean dagoen azalpena ez du argira atera nahi izan ingelesak, baina ez omen da soilik CD-aren kantu kopurua. Oraindik data jakinik eman ez den arren, informazio guztien arabera "18" maiatzean izango dugu eskuartean. Orduan jakin ahal izango dugu nondik norakoak izan diren Angie Stone eta MC Lyte-k diskoan eduki duten parte hartzearen emaitzak.

MOBY's follow-up to "Play" almost ready for release

Moby is in the studios putting the final touches to his latest album "18". The word out is that he plans to cause the same type of reaction as achieved with "Play". He's keeping his lips buttoned on the reason for the title but it seems to be more than just the number of songs set to appear on the record. Although there has been no release date confirmed, it seems likely that it will hit the streets in May. That's when we'll be able to see just what it is that Angie Stone and MC Lyte have added to the record.

Donostiako XIII. beldurrezko astea

Santiago Segurak burua galdu du. Edo moztu egin diote. Kontua da Donostiako beldurrezko asteak lanean jarri dituela bere agintera dituen zombiak. Afitxe Psico-kitsch-az gain, datorren ediziorako Germaniar espressionismoari eskeinitako zikloa eta, ohitura onari jarraituaz, "Perversa America Latina" bilduma eskeiniko dituzte. Gure inguruko zinemaldirik kuttunena abian da. Eutsi buruari.

The XIII Donostia Week of Horror Cinema

Santiago Segura has gone and lost his head. Either that or they've lopped it off. The story goes that The Donostia Week of Horror Cinema has got all available zombies out on the job. Not only do they have a little Psycho-Kitsch in store as promised by the poster announcing the festival, they'll also be offering a special section on German Expressionism. Add that to annual treat of "Perverse Latin America" and you've got the makings of our most loved film festival. Keep your head on!



JARRAITZAILE AK URDURI JARTZEN HASIAK ZIREN

DJ SHADOW-en lan berria

Sei urte bete dira "Endroducing" izeneko lana argitaratu zuenetik. Jarraitzaileak urduri jartzen hasiak ziren DJ Shadow-en lan berriaren arrastorik jaso gabe, eta hau ikusirik japoniarren konpainiak "The private press" iragarri du DJ Shadow-en disko berriak izango duen izenburu bezala. Dirudenez Josh Davis (DJ Shadow) lanean da egunotan lan berri honen abestien gainean eta urtea amaitu baino lehenago egongo omen da nahi duenaren eskura. Bide batez, jakitera eman dira ere disko berria osatu behar duten zenbait abestiren izenak: "Fixed Income", "Monosylabik" eta "Giving Up The Ghost".



DJ SHADOW's latest

It's been six years since the release of Shadow's "Endroducing". Fans were beginning to get a little nervous, so his Japanese record company have announced that "The Private Press" will be the title of his new record. Josh Davis (DJ Shadow) is at work on it in the studios at the moment and it should be available before the year is up. The names of some of the songs have been made public: "Fixed Income", "Monosylabik" and "Giving up the Ghost".






The balde jaiak

The Balderen 3. alea aurkezteko jaiak eginen dira Iruñean eta Bilbon. Iruñeko Artsaia Music Club aretoan Lif eta Kuraia taldeek kontzertua eskainiko dute apirilaren 26an. Bestalde, The Balde, Radiation Tours eta Intermusic-en artean antolatutako festan Steve Gamboa, Alain eta Gonzalo Djak izanen dira Bilboko Caos tabernan maiatzaren 5an gaueko 22.30etatik aurrera. Eta hau guztia, zure zapatak hausteko asmoarekin, uda iristear dago eta zapatillak jazten hasteko ordua duzu!

The Balde Gets Ready to Party

Presentation bashes for The Balde No. 3 will be held in Iruñea and Bilbo respectively, Kuraia and Lif will be playing at Artsaia Music Club on the 26th of April. The Balde, Radiation Tours and Intermusic have, on the other hand, gotten together to bring you DJ Steve Gamboa, Alain and Gonzalo. The bash kicks off at 22:30 at Caos bar in Bilbo on May the 5th. Time to get down and bop your old boots to bits. You won't be needing them in the Summer anyway!



Galileo big brother

Europak, 2007-8. urterako, 30 sateliteko botako ditu espaziora, "Galileo" izeneko satelite bidezko nabigazio sistema osatuz. Nabigazioa Programa honen atzean europako hainbat herrialdetako gobernu eta enpresa indartsuak daude. Hauen hitzetan, Amerikarren GPSaren monopolioa hautsita, denok pozez gainezka egon beharko ginateke. Prezioak behera ziztu bizian eta gure bolante atzetik aho goxo batek esango dizkigunak entzutera denok: «hurrengo bidegurutzean eskubira hartu eta 50 metrotara daukazu McDonalds-a, txapeldun». Big brother (ez nahastu "kabezon"-ek gidatutakoarekin) zuri begira dago, 60zmtako prezisioarekin.

Big Brother Galileo

Europe will have launched 30 satellites into space by 2007-8 to make up the "Galileo" navigation system. Several European governments and powerful businesses are to be found lurking behind this navigation programme. According to them we should be all over the moon as this will banjax the Americans' GPS monopoly. Prices will plummet and we'll all have to listen to a sweet and soft voice coming from somewhere behind the steering wheel as it tells us to: «turn right at the next crossroads and drive on 50 metres till you get to the big McDonalds sign». Big Brother (don't mix him up with chap mentioned above) is watching you, with 60cm precision.

AMERIKARREN
GPSAREN MONOPOLIOA
HAUTSITA

PROMOTE

Kimuak laburmetraiak

Urtero bezala Euska Jaurlaritzak Kimuak izenpean Euskal Herrian egindako laburmetrai hoberenen selekzioa eginen du lan hauei bultzada emateko asmoz. Aurten ere gauza bera eginen dute eta 2001. urtean izandako laburmetrai esanguratsuenak batzen dituen bilduma aurkezten dihardute. Donostiako Antzoki Zaharrean lehen emanaldia eginen da apirilaren 19an. Ondoren, hainbat tokietara hurbilduko da egitasmo hau.


Kimuak Short Film Festival

In its yearly effort to promote short films the Basque Government has once again organised its festival "Buds" of the best short films made in the Basque Country in 2001. The first screening will take place in the Antzoki Zaharra on April the 19th. Further screenings will take place at different venues at later dates.



Sen "Gaizki Esanak..."

Haritz Harreguy, Aitor Uriarte, Aiheko Zubimendi eta Joseba San Sebastianek osatzen duten taldearen bigarren emaitza, lehena Metak zigiluarentzat. Pop-rock doinuak non gitarra nagusi den, melodiaz beterikoak eta oinarri eritmiko sendoa duen kantu bilduma. Garate estudioetan grabatua eta nahastua eta kantuak borobilagoak izaki taldearen soinua finkatzen da bigarren lan honetan.



M012CD/MC



Tl.t "Minus"

Aldaketak nagusi direla esan genezake Tl.t. ren baitan. Aldaketak lehenabizikoz Tio Pete estudioa utzi eta Garaten grabatuko dutelako. Aldaketak teknikari lanetan Haritz Harreguy azaltzen zaigulako. Aldaketa ere gitarra apalean David agertzen delako Txarliren ordez. Baina gero aurkitzen duguna Tl.t. taldearen diskorik biribilena dugu. Melodia eta indarra inoiz ez bezala uztartzen da mungiarren lan berrian. CDRom pista gordetzen du berriean. Informazio zabalagoa: www.pi-lt.com



M011CD/MC



Selektah Kolektiboa "Esperientzien Etorbidetik"

Wanka, DZ, Molte eta Daddy Jeffek bere bigarren lana dakarkigute. Kataluniako La Porta estudioetan Tonyk, besteak beste 7Notas7Colores, Eddie La Sombra eta La Malarekin lan egindakoa, grabatua. Aurreko lanaren harrera ona hobetzeri dator honakoa izan ere taldeak esperientzien etorbidetik izendatu du bere lan berri hau eta ez arrazoirik gabe.



M013CD



EH Sukarra "Galtzailearen Egunak"

Erregaitzak dira eibartar hauek. 5 lan kaleratu zituzten Esan Ozenki zigiluarekin eta seigarren bat grabatzen dihardute egunotan, Metak zigiluarendako oraingoan. Rock gihartsua, pop eta punk ukituaz eta melodiaz lepo. Berriz grabatua eta Aitor Ariñok ekoiztia. Multimedia pistadun CDA izango da honakoa ere.



M017CD/MC



PIL-PIL SESSIONS 01

-gailu Kutxa beltza

mikel abrego (bap, negu gorriak, anari...) eta luis andrè bideo egilearen arteko elkarlana da. bilboko trafikoa kudeatzeko kamera sareaz baliatuz egindako dokumentalaren soinu banda zena, kantu eta bideoklip bihurtu dute. kolaboratzaileen artean: bap!! taldeko eneko abrego, drake eta jones, anari, javi p3z, fernando kuraia eta beste asko

CD+ (Musika eta bideoa)



M015CD



100% Collègues

AlterMetak, beste Metak.

Mundu zabaleko musikak euskalerriratzeko jaiotako zigilu berriaren lehen erreferentzia Okzitaniako Tolosatik datorrigu: 100% Collègues.

Musikari ezagunek (Zebdako Magyd, Remi, Hakim eta Mustapha, Bernardo Sandoval eta beste hainbat) osatzen dute adiskidetasunean oinarritzen den ez ohiko talde hau. Beraien lehen bi diskoak biltzen dizkizugu gure lehen argitalpen honetan.



M016CD

ALBERT PLA



konbentzigarria eta ez oso konbentzitua convincing albeit not convinced

Hiru urteko aldentzearen ostean, Albert Plak zuzenean ikustean egiten duen lehenengo inpresioa, utzi zuen puntuan jarraitzen duela da. Bere kantu berriek, ia denak gaztelarazkoak, gauzain despotikoez, ongia eta gaizkiaren arteko desberdintasunaz, mil hirian zehar paseatzeko alde egiten duten mila begi edo bihotzako emaztegaiez hitz egiten dute. Horiek guztiak bere bost albumetarik edozeinetan sar litezke. Hau da, oso ongi daude.

The first impression you get when seeing Albert Pla in concert after his three year break from live shows, is that he hasn't changed in the slightest. His new songs, the vast majority in Spanish, deal with severe head wrecks, the difference between good and evil, girlfriends with a thousand eyes or beating hearts that wander off down streets just looking to get away from it all. These songs would be at home on any one of his five records. They're that good.

Oraingoan ezustekorik gabe itzuli da. Baliteke ezustekoak datorren apirilaren 23an argitaratuko den "Anem al lliit" (Goazen ohera), katalanezko sehaska-kanten diskorako gordetzea. Ez du axola aurrera doan ala ez: Plak, gainerako kantugileen aldean duen abantailari esker, bere betiko estiloa ustiatzen jarrai dezake. Nola definitu? Ez da batere erraza. Arrasto batzuk ematera mugatzea hobe izango da. Pertsonaiak asmatzen eta interpretatzen jarraitzen du (beste batzuk bere pertsonaiari esker bizi dira). Gure gabeziak aurpegira kantatzeagatik txaloak jasotzen jarraitzen du. Adi egon da "Ho Sento molt" (1989), bere estreinaldiko diskotik. Inork ez bezala bereganatu du publikoa, are gehiago, publikoaren kopurua handitu du. Meritu handia da saltzen duena kontuan hartuz gero: poesia eszeptiko eta gordina. Show bakoitzean botatzen duen esaldi kutunetariakoak bere jarrera definitzeko balio dezake: «Ez dezagun geure burua engaina: ilargiak ez du dirdirarik egiten». Agian etxeko lanpasean (felpudoan) inprimatua du.



ALBERT PLA

Zure disko berria gaztelarazkoa izango zela eta "Corazones" izena izango zuela irakurri nuen. Bai, hura informazio desegoki bat zen. Nahiz eta horrelako izenik ez duen, "Corazones" zuzenean abesten dudana kantu bat da. Momentuz, aurkeztu ditudan gaztelarazko kantuak grabatzea ez dut aurreikusirik. Sehaska-kanten gai hau egingo dut. Haurrentzako diskoa da. Lo egitera joateko kanten diskoa.

Idea nola sortu zen?

Ba, nik kanturen bat nuen eta...beno, batez ere, nik neuk disko bat egiteko ideia izan zen. Bakarrik, musikariarik gabe, ekoizlerik gabe, instrumenturik gabe. Ezer gabe.

Zuri egindako elkarrizketetan Sisa eta Javier Kraherekiko izugarritzko gertutasuna eta konexioa nabari da. Hurbilen sentitzen dituzun artistak al dira?

Ba,... biak asko miresten ditut.

Zer da beraiengandik ikasi duzun gauzarik garrantzitsuena?

Javierrengandik... musikatik jaun baten modura bizitzea. Izan ere, neuk lan bera egiten dut.

«Musikaz jaun baten modura bizi» diozunean, nahi duzuna egiteaz eta hortaz bizitzeaz ari zara?

Beno, ez dakit Javier zehazki hori izango den, baina neuk erreferentzia gisa begiratzen diot (barre egiten du) eta interesatzen zait. Berak nola egiten duen lan, Javier Ruibalek nola egiten duen lan. Bere mundu profesionalaren banean nagoela sentitzen dut. Ni iri Alejandro Sanzi buruz hitz egin diezadakete eta gustatu dakidake ala ez, baina ezagutzen ez dudana egiten du. Javier eta bion artean egon badago nolabaiteko paralelotasunik, baina nik egiten dudana leku beretan lan egiten du, eritmo berean ibiltzen gara...

Jabier Muguruzak antzeko zerbait dio...

Jabier Muguruzak gauza bera, nik bezala lanbide berean dihardu.

Bera bizitzaren aurrean tankerako moduan kokatzen den jendeaz ari da. Bere kasuan, Bernardo Atxagaz, Ruper Ordorikaz...

Ruper, Javier Ruibal... ldo berean lan egiten duen jende pila dago.

This time round there are no surprises. If there are, he's keeping them up his sleeve for "Anem al lliit" (Vamos a la cama), his album of lullabies in Catalan due for release on the 23rd of April. It doesn't really matter if he ploughs new fields or not: Pla is so far ahead of other singer-songwriters that he can happily rip himself off for a long while yet. Define it? Not an easy job. It'd probably be easier just to give you a few clues. Pla is back and is still allergic to giving opinions. He's still making up and interpreting new characters (others just live off his). He's still being applauded for telling us our faults to our faces. He has hardly let up since his debut "Ho sento molt" (1989). He's carved out his little niche and he's managed to make it bigger. There's big words when you consider just what it is he does: blunt, skeptical poetry. One of his favourite one-liners that he rolls out during his live performances gives us an indication of where he's coming from: «let's not fool ourselves, the moon don't shine». Maybe he has it on his doormat.

I read somewhere that your new record would be in Spanish and that the title would be Corazones.

Yeah, well, that's not actually quite the truth. "Corazones" is a song I play live, and it's not even called that. I mean, I haven't even thought about recording these new songs that I sing in Spanish. I'm gonna do this lullaby thing. It's a record for kids. A bedtime record.

Where did you get the idea from?

I had the odd song and... the whole idea came from me doing something by myself. An album without musicians, no producer, no instruments. No nothing.

One picks up a certain connection or bond between you and Sisa and Javier Krahe from your interviews.

Does such an affinity exist?

Well, I do admire them both a lot.

What's the most important thing you've learnt from them?

Javier has really showed me how to get the most out of music. Let's face it, I do the same type of work as he does.

When you say "get the most out of music", do you mean you get to do what you like and make a living out of it at the same time?

Well, I don't know if that's what he's all about, but he's a reference point for me (laughs) and I'm all ears. The way he works, the way Javier Ruibal works. I feel as if I belong to the same circle. They can talk to me about Alejandro Sanzi and I can like him or not, but he does stuff I know nothing about. There's a certain parallel alright, but Javier works in the same little world as me, we both walk at the same speed...

Jabier Muguruza says something similar...

Jabier Muguruza is in the same trade as me.

He talks about people who have the same outlook on life as he does. He mentions Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika...

Ruper, Javier Ruibal... there's a load of heads going in that same direction.



Edonola ere, bera konexio estetiko hori azpimarratzen saiatzen da. Zeuk sentitzen al duzu sintonia hau Kraherekin, Sisarekin...?

Beno, erabateko lanbide sintonia da, lana gobernatzeko moduaren sintonia. Beraien adinera iritsi nahi nuke eta, nola ez, beraiek egiten dituzten gauzak egin, ezta?

Zure kontzertuetan barre egiten duen jendea mespretxatzea da oso jarrera atzekaria.

Bai, nire kontzertuetan barre egiteagatik haserretzen den jende asko dago. Kezkatu egiten dira, arduratzen den jendea dago. Ez kritikoen artean, soilik, baita publiko artean ere. Bada jendea Tom Waits berari gustatu eta pijo bati Tom Waits gustatzeagatik mintzen dena (barrea). "Zuri Manu Chao gustatzen zaizu? Izan ere, ez dut ulertzen, motel!" (barre gehiago). Ezin baita...(etsipen keinua). Horrelakoak gara. Izan ere, ... horrelako gauzak esatea...

Horrelako jarrerak gogaitzen zaituzte?

Ez, niri berdin zait. Zer nahi duzu esatea? Autografo bat eskatzen dizutenean bezala da. Autografoa sinatzea lerdokeria bat dela konbentitzen hamar minutu pasatzea nahi duzu? Edo, aurpegira begiratu ere egin gabe sinatzen duzu? Bai, horixe egiten duzu. Zergatik eman behar duzu autografoei buruzko iritzia, azkarrago sinatzen bada? Zergatik ezezko bat eman eta, gainera, zure bitzta adierazi? (barrea).

Zine eta antzerkirako aktore planik ba al duzu?

Zine eta antzerkirako planak niri egin egiten dizkidate, ez ditut neuk egiten. Plan bikainen bat duen norbaitek proposatu behar dit. Orain Joaquín Jordaren filme berrirako musika prestatu dut, baina ez dakit nola izango duen izena. Ez daukat ideiarik.

Musikak adina asetzen zaitu?

Lan bakoitzak bere zirkloak ditu. Sehaska-kanten diskoa laster kaleratuko da, baina ia grabatzen aritu nintzen. Zeure erara aritzea da gauza, ezta? Azkenean, beti gauza bera egiten duzu. Inor ez da leloa. Luz Casalek bi urte ematen baditu disko bat kaleratzen, jakina da ez dela bera hil delako izan.

Duela gutxi, kantuak egiten jarraitzeko zerk motibatzen zintuen galderaren aurrean, hau erantzun zenuen: «300 kilo eman eta egiteari utziko diot». Benetan, kantuak egiteari utz zeniezaioke?

Gutxiagogatik ere bai. Garai batean La Vanguardian iragarki bat jarri nuen: «Nire isiltasuna saltzen dut». Eta oraindik salgai jarraitzen du. Norbaitek 300 milioi pela ordaintzen badizkit, kantuak egiteari utziko diot.

All the same, he seems to underline this aesthetic connection. Do you feel this same kind of link to Krahe and Sisa...?

Well, link, it's just that we do the same kind of work. I'd just like to get to their age and do the things they're doing, don't you think?

This being pissed off with people who laugh at your gigs seems to be a common occurrence. Yeah, there are a lot of people who get pissed off because others laugh at my gigs. They worry, there are people who worry. Not just the critics; among the ordinary punters too. There are people who like Tom Waits who get browned off because there are little fashion freaks who like Tom Waits too (laughs). "Do you like Manu Chao? I just don't understand him" (more laughs). Yeah, it's just no...(gesture of resignation). We're just like that. It's just...the mere fact that they say these kind of things to you.

Do these attitudes bother you?

No, I couldn't care less. I mean, what do you want me to say? It's like when they ask you for an autograph. What do you want me to do? Should you spend ten minutes trying to convince some geezer that signing an autograph is just plain stupid? Or do you just sign it without even looking at whoever it is? That's what you do. It takes less time. Or doesn't it? Why should you start spouting off opinions on autographs when it's much quicker if you just sign it? Why are you gonna say no and then give them your life story? (laughs).

What's are your plans on the cinema and theatre front?

I don't make plans when it comes to acting. I don't. Someone has to come to me with the dog's bollocks of an idea. I'm gonna do the music for Joaquín Jorda's new film, but I haven't a clue what it's gonna be called. I haven't a notion.

Do you get the same kind of fulfillment from acting as you do from music?

Each thing has its own cycle. The lullaby record comes out now, but I recorded it last year. It's all about doing your own thing, isn't it? At the end of the day, you always do the same. No-one is stupid: they know that if Luz Casal takes two years to bring out a new record it's not because she's after dying or anything.

When you were asked a while ago about what kept you wanting to write songs, you said: "give me 300 million pesetas and I won't do it any more". Could you really give it up so easily?

I'd do it for even less. I put an ad in the la Vanguardia for a while that went: "My silence for sale". It still is. If anybody gives me 300 million pesetas, I'll give up writing songs.

NON AURKITU THE BALDEREN KUTIXIAK

WHERE TO FIND US



IRUÑEA

- | | |
|----------------|------------------------|
| KUKUXUMUSU | ARROPA DENDA |
| XALBADOR | DISKA ETA LIBURU DENDA |
| XALEM | DISKA ETA LIBURU DENDA |
| GOLEM | ZINEMAK |
| NICOLETTE | DANCE CLUB |
| ARTSAIA | KONTZERTU ARETOA |
| ALDAPA | TABERNA |
| TXORIMALO | TABERNA |
| MOTA | KALAMU DENDA |
| SLIDE | SNOW & SKATE WEAR |
| LAS PALAS | ILEAPAINDEGIA |
| SUITE | MUSIKA DENDA |
| LOREAK MENDIAN | ARROPA DENDA |

BILBO

- | | |
|---------------|--------------------------|
| DOM | ILEAPAINDEGIA |
| OZONO | PIERCING |
| LOGAN | PIERCING & ILEAPAINDEGIA |
| BETADUR | ILEAPAINDEGIA |
| BOTXO | JATETXEA |
| BILBOROCK | KONTZERTU ARETOA |
| ITSUK GROW | KALAMU DENDA |
| BIZITZA | TABERNA |
| BILBOARTE | KULTURUNEA |
| INTERMUSIC | DJ DENDA |
| KUKUXUMUSU | ARROPA DENDA |
| MICA | ARROPA DENDA |
| LA BARAQUE | ILEAPAINDEGIA & ESTETIKA |
| DON CHUFO | JATETXE-KAFETEGIA |
| EBARISTO MAIZ | ILEAPAINDEGIA |
| IKEA | TABERNA |
| AREA 51 | TATTOO & PIERCING |

BAIONA

- | | |
|----------------|--------------|
| KUKUXUMUSU | ARROPA DENDA |
| GASTEIZ | |
| AMETSAK | KALAMU DENDA |
| NO XURF | SURF DENDA |
| SARTU | ARROPA DENDA |
| KUKUXUMUSU | ARROPA DENDA |
| DOTAKON | ARROPA DENDA |

DONOSTIA

- | | |
|-----------------|-----------------------------------|
| LA MOTA | KALAMU DENDA |
| KAYA | KALAMU DENDA |
| QUIKSILVER | SURF DENDA |
| ALBOKA | TABERNA |
| ZIRIPOT | TABERNA |
| OLD SCHOOL | HIP HOP DENDA |
| DAM | ARROPA DENDA |
| KOLDO MITXELENA | KULTURUNEA |
| POLYESTER | PIERCING & TATTOO & ILEAPAINDEGIA |
| DIAGONAL | ARROPA DENDA |
| KUKUXUMUSU | ARROPA DENDA |
| CRAJ | KULTURUNEA |
| UREPEL | JATETXEA |
| A+T | TATTOO |
| ARTELEKU | KULTURUNEA |
| ETXEKALTE | DANCE CLUB |

FESTIMAD'02

MAIATZAK 24 - 25 / PARRIQUELS ITZULAN OSTOLEA / www.festimad.es

the halde

HARPIDEDUNEN ARTEAN FESTIMADERAKO 10 BONO ZOZKETATUKO DIRA

10 VOUCHERS FOR FESTIMAD WILL BE RAFFLED AMONG THE SUBSCRIBERS

URTERETEKO HARPIDETZA
ONE YEAR SUBSCRIPTION

9€



HERRIAK

XURRUT	PIZZERIA-KONTZERTU ARETOA	GORLIZ
IRRINTZI	TABERNA	GERNIKA
BOLATOKI	TABERNA	BERMEO
KUKUXUMUSU	ARROPA DENDA	BARAKALDO
MIKELAZULO	KULTUR ELKARTEA	ORERETA
ITZALARGIKO BORDA	JATETXEA	ELIZONDO
DOLETXEA	TABERNA	ARIZKUN
ATERPEA	ATERPEA	ORIO
BERTSO HOP-BILINTX	DISKA ETA LIBURU DENDA	IRUN
JAM	KONTZERTU ARETOA	BERGARA
EDERRA	TABERNA	ARRASATE
EKLIPSE	TATTOO & ARROPA & ZAPATILAK & PIERCING	ARRASATE
DOTAKON	ARROPA DENDA	ARRASATE
ZUTE	ILEAPAINDEGIA	TOLOSA



IZEN ABIZENAK / NAME

HELBIDEA / ADDRESS

POSTAKODEA / POSTAL CODE

HERRIA / PROVINCE

BANKUA / BANK

KONTU KORRONTEA / ACCOUNT NUMBER (20 DIGITO-RIB)

aborigenen ahotsak

Kontatzen dute Ken Hale-k hizkuntzalariak hiru hilabete besterik ez zuela behar munduko edozein hizkuntza ikasteko. Kontatzen dute hizkuntzalariak bere umeak eraman zituela Australiako eremu zabaletara, umetan ikas zezaten paraje hartako hizkuntza zaharretako bat. Ken Hale hila da oraindik orain. Hilzorian dago umeek txikitan ikasi zuten hizkuntza bitxi hura.

Australia handiko biztanlegoaren ehuneko hiru inguru izango dira aborigenak. Hala ere, kontatzen dute, kartzetako biztanleak kontuan hartuz gero ehuneko hogeita hamar direla. Duela gutxirarte ezezaguna izan bada ere Australiako aborigenek bizitakoak ez dauka berbarik. Adibide bat: "Stolen generation" izeneko belaunaldi hari jazorikoa. Aurreko mendearen lehen erdialdean gurasoengandik aldendu zituzten ume aborigenak, haien bizimodua umeentzako kaltegarri zela iritzi baitzieten agintariek, gurasoak ez zirela nor umeak hezitzeko. Halaxe, misioetan edo zurien etxeetan hazi zituzten umeok. Kontatzen dute, duela berrogei urte eskas ohikoak zirela Queenslandeko lurretan aborigenen ehizak. Kontatzen dute. 1988an halako barkamen antzeko bat zabaldu zuten agintari zuriek. Beranduegi aborigenen usterako. Zurikeria.

aboriginal voices

They say that the linguist Ken Hale needed no more than three months to learn any language in the world. They say that the linguist took his children to Australian Outback so they could learn one of the oldest languages to be found in those parts. Ken Hale died recently. The strange language his children studied as kids is on the point of doing so.

They say that about three out of every one hundred Australians are Aborigines. However, if you based the statistics on prison populations, they would make up thirty per cent of the people in Australia. Although what went on was unknown until quite recently, there are no words to describe what the Aborigines have lived through. What is called "The Stolen Generation" is just one example of what I mean. Aboriginal children were taken from their parents in the first half of the last Century because the authorities felt that the Aboriginal lifestyle placed the children in peril. They deemed Aboriginal parents unfit to raise their own children. The children were carted off to missions or housed with white families. They say that Aborigines were still being hunted in Queensland a mere forty years ago. They say.

The white authorities issued an limp if official apology in 1988. Too late in the eyes of the Aborigines. Watery whitewashing.



HARRIAROA STONE AGE

Gizon zuria, soilik denbora dago gu bion artean.
 Antzina-antzina leizeetan bizi zinen zeu ere.
 Harrizko aizkora erabiltzen zenuen eta larruak jantzi.
 Zeu ere beldur zinen ilunbeez, ihes egiten zenuen ezezagunetik.
 Egin atzera, gogora ezazu zeure Altxeringa1 garai hura,
 Tximista artean majikoa zen garai hura, zeruan lehertzen zen
 Trumoiak ikaratzen zintuen garai hura.
 Gizon zuria, arraza hobea duzun hori,
 Soilik denbora dago gure artean.
 Batzuk zahartzen diren bitartean
 Besteak beti haur izango bagina bezala.
 Harriaroko azken leinuak gara gu,
 Eta zain gaude, denborak lagun gaitzan,
 Zuei behin lagundu zizuen moduan.

Oodgeroo, Gutarrak, 1970.

White man, only time is between us,
 once in the time long gone you lived in caves,
 you used stone axe, you clothed yourself in skins,
 You too feared the dark, fled the unknown.
 Go back, remember your own Alcheringa
 When lightning still was magic and you hid
 From terrible thunder rolling in the sky.
 White superior race, only time is between us—
 As some are grown up and others yet children.
 We are the last of The Stone Age tribes,
 Waiting for time to help us
 As time helped you.
 Oodgeroo, My People, 1970.

Artxeninga: Unibertsoa sortu zeneko garaia.
 Alcheringa: the time when the Universe was created.

LASTIMA SHAME

Eta zenbaitek dio "lastima" hitz egiten ari garenean
 Eta "lastima" gauden moduan gaudelako
 Eta "lastima" guk ez dugulako etxe dotore bat
 Edo lanpostu finkoa eta autoa

"Lastima" esaten dio zenbaitek gure haurrak
 hoztuta hiltzen direnean edo utzikeria hutsagatik
 "Lastima" ibaiertzean bizi garelako
 gure laguntza bonuak bildu bitartean
 "Lastima" trakoma gaitzak itsutu bagaitu
 "Lastima" lur jota bagaude

Baina nik uste zuena dela lastimarik handiena
 Zuek ukatzen dizkiguzue eta giza eskubideak.

Alde beltza, Kevin Gilbert, 1990.

And some say 'Shame' when we're talkin' up
 And 'Shame' for the way we are
 And 'Shame' cause we ain't got a big flash house
 Or a steady job and a car

Some call it 'Shame' when our kids they die
 From colds or from sheer neglect
 'Shame' when we live on the river banks
 While collectin' our welfare cheques
 'Shame' when we're blind from trachoma
 'Shame' when we're crippled from blights

But I reckon the worstest shame is yours
 You deny us human rights

Kevin Gilbert, The Blackside, 1990.

ZAHARRAK

Begira
 zaharrei,
 nola egiten duten
 hitz
 haien eskuekin.

Zuhaitzak
 bezalakoak
 dira
 gure lur
 ederrean.

Entzun
 zaharrei
 antzinako garaiei
 buruz
 hitz egiten.

Kirika egin
 zaharrei
 nola seinalatzen duten
 haien
 lantzekin.

Kimberley euria
 bezalakoak
 dira
 hain urrun
 hain hurre.

ELDERS

Look
 at the elders
 as they
 talk
 with their hands.

They are
 like trees
 in
 our beautiful land.

Listen
 to the elders
 as they tell
 of
 long time ago.

Watch
 the elders
 as they
 take aim
 with their spear.

For they
 are like
 the Kimberley rains
 so far
 yet so near.

Kantagilea, Alf Taylor, 1992.

Alf Taylor, Singer Songwriter, 1992.






Musika Gida, klikatu eta entzun!



www.gaztemaniak.net/musikagida



Zer nahi dugu?: euskara herri bukolikoa izan dadin ala hiri garatua? Bi aukerak eskura badaude ere, ondorio eta eredu ezberdinetara garamatzate. Zeren herri bukolikoan ezin da etxe-orratzik eraiki, eta hiri garatua izan dezagun herri-lanetan lehenbailehen hasi beharko gara, herri garapenerantz, hizkuntz garapenerantz. Herri bukolikoa nahi bada, izan gaitezen kontziente horrek dakartzan mugapenez; eta hiri garatua nahi bada, euskararen garabideetatik abiatu behar gara.

Hori da, hain zuzen ere, egileak liburu honetan aldarrikatzen duena: euskara garabidean jarri behar dela. Eta herri-lan horri ekiteko, hainbat proposamen plazaratzen ditu, helburu nagusi batekin: euskaldun pentsamenduari ahalbide eraginkorrak ematea, behar edo nahi denerako aukera efizientagoak, egokiagoak ematea. Dirkurtsua era komunikatiboagoan egituratuz, diskurtsua erraztu egiten da, lasaitu egiten da. Gauza gehiago eta hobeto esaten dira. Detaile gehiago era trinkoago eta egokiago batean ematen dira. Diskurtsua erraztuz euskaldun bizi-maila igotzen da.



LAMBCHOP, distantzia laburrean

testua / by: asier leoz

Nashville. Jack Daniels botilak bata bestearen atzetik eskenatokia babesten duen metalezko sarea jotzen. John Belushi tabernariari: «Zein musika jartzen duzue hemen?» – «Biak, Country eta Western...» Azkenaldian gorpuztu den "Alt Country" edo "Americana" mugimenduak lur eman dio Nashville topikoari. Caalexico, Whiskeytown, Jim White, Lost Highway zigilua... elkarren arteko lotura unerik emankorrenean dagoen olatua da.

"Americana"-k duen buruetako bat, Kurt Wagner (1958, Maryland): «Haur bat nintzela Nashville-era joan ginenean, autoaren atzeko leihoatik begira pentsatzen nuen: Ene, Nashville... nola bururatu zaie hara joatea... hasiera zaila izan zen. Hangoen azentu berbera ez nuenez herriko red-neck country zale guztiak nire bila etortzen ziren borroka gogoz». 87an Wagner emaztearen disko dendan jotzen hasi zen bere lagunekin. 94an lehen diskoa zuten kalean ("Jack's tulips"). Egun, sei lanen buruan, Lambchop ezinbesteko taldea bilakatu da.

is a woman

Aurreko diskoan ("Nixon") Lambchop soul musikan barneratu zen Curtis Mayfield/AI Green bidean baina Nashville sustraia galdu gabe. Instrumentazio aberatsa eta hamar kantuen gainean espresio handiko ahotsa. "Is a woman" lan berria, aurrekoa gelditu zen toki berean hasten da, estutu gabe. Tony Crow kide berriaren jazz ukituko pianoa eta Kurt Wagner, bisera gorria soinean, bere ahotsaz baliatzen eguneroko gauzak distantzia laburrean kontatzeko. Beltzen musika ez dago, antza, Hank Williams-en belardi haietatik urrun.

a close up on LAMBCHOP

Nashville. Bottle after bottle of Jack Daniels crash into the wire netting that protects the stage. John Belushi asks the Barman: «What kinda music do ya play here?» - «Both kinds, Country and Western...»

The "Alt Country" or "Americana" movement has laid the old Nashville ghost to rest. Caalexico, Whiskeytown, Jim White, the Lost Highway Record Company... have all banded together and caused this new style of Country music to really take off.

Kurt Wagner, one of the leading "Americana" artists: «When I was a child and we moved to Nashville, I remember looking out the back window of the car and thinking to myself...My God, Nashville! What on Earth has possessed them to come to Nashville... the start was a bit difficult. Just because I didn't have the same accent, all those red-neck country fans kept coming up to me looking to pick a fight». In 1987 Wagner started to play music with some friends of his in his wife's record shop. Their first record came out in 1994 ("Jack's Tulips"). Lambchop, after six LPs, have become a reference a reference point in all "Americana".

Is a Woman

On their last record "Nixon", Lambchop ventured down the soul lined avenues of Curtis Mayfield and Al Green, but they still managed to hold onto their Nashville roots. Rich instrumentation and a wonderfully expressive voice driving the songs along. "Is a Woman" picks up from where the last record left off. The new member Tony Crow with his jazzy piano and Kurt Wagner, red baseball cap and all, talk to us of everyday life as observed from close up. Maybe Black music just wasn't all that far removed from where Hank Williams was going after all.



testua / by: makala

AUDIO

MR. SCRUFF

'Heavyweight Rib Ticklers'

© 2002 UNFOLD RECORDS / TRU THOUGHTS



ROOTS MANUVA

"Run Come Save Me"

© 2001 Big Dada Recordings


Gutxitan topatu dut Hip hop disko bat non abeslaria beltza ez izanik, doinu hauen jatorri amerikarrean bizi direnek bezain ondo egiten duen bere lana. Europa inguruko hip hop talde gehienek abeslariaren postuan dute gabezia nabariena, oso gutxi heltzen baitira Hip hop-aren NBA delakora gerturatzerara. Europa osoan argi dago musika hau indartuz doala eta asko direla Hip hop kultura esaten zaion horri kontsumitzen dutenak. Egun ez da zaila denbora eta ahalegina estilo honi begira ematen duten disko, kontzertu, aldizkari, irratsaio, arropa eta abar topatzea. Beraz, dagoeneko inork ez du zalantzan jartzerik estiloaren garrantzia. Gogoeta bere horretan utzita, "Run Come Save Me", Roots Manuva abeslariaren lehendabiziko lan luzea, iazko diskorik onenen zerrendatan kokatuta azaldu da toki askotan eta ez da kasualitate kontua. Lehendabiziko entzunaldiak errazak ez diren arren, entzun ahala gero eta gehiago harrapatzen zaitu. Hasteko, hari orkestra batek jantzitako introa eta berehala "Basement Boogie" abestian sartzen gara, ez ohizko hip hop kantua, Rodney Smith-en ahots ederra Ricky Rankin´-en ragga ukituarekin nahasiaz. Gainontzeko abestietan jamaikar sustraiak rock edo trip hop itxurak erabiliaz azaltzen dira etengabe. Benetan da nabarmentzeko modukoa eritmo oinarrien erabilpena, tarteka abstraktu samarrak. Musika modu bati garatze sendoa ematen dioten formulak erabiliaz, Roots Manuvarena Big Dada Recordings zigilu berritzailearen emaitzen mailari eusten dio.

I have rarely come across a Hip Hop record where non black singers do it just as well as those who live in the land that gave birth to this type of music. Most European Hip Hop bands are normally lacking in the vocalist department, very few of them get to the NBA of Hip Hop. It's blatantly clear that this music is getting stronger in Europe and that more and more punters are being attracted to it. Nowadays you don't have to go to any great lengths to find Hip Hop records, concerts, magazines, radio shows or clothes that go with the music. Nobody doubts the importance of this musical movement. Leaving aside that short analysis on the Hip Hop boom, it's no coincidence that the singer Roots Manuva's first LP "Run Come Save Me" appeared in many of last year's "The Best Records of the Year" lists. Although a bit difficult to listen to at first, this record just grows and grows on you. To start off with we have a string section introduction that bleeds into "Basement Boogie" which could hardly be described as a typical Hip Hop song. There's a great combination of Rodney Smith's beautiful voice and Ricky Rankin's ragga. Jamaican roots with touches of rock or trip hop constantly surface in the rest of the songs. The rythms, quite abstract at times, form the outstanding backbone of the record. Roots Manuva's healthy musical development maintains the standards of the innovative record label Big Dada Recordings' releases.



Musika egile eta dj ingeles emankorra, Ninja Tune edo desagertu Cup pof Tea zigilu eraginkorretan benetan orijinalak eta eklektikoak diren diskoak egiteaz gain, bere lanen azalak diseinatzeko gauza da. Horretarako erabili izaten dituen pertsonaia xelebreak dagoeneko zabaldu berria duen web orrian azaltzen dira animatuta. Oraingoan Brighton hirian sortu berria den Unfold Records–Tru Thoughts izeneko zigiluak, soilik dj-en bilduma lanak kaleratzen dituenak, apustua egin du Scruff jaunaren alde. Berari eskatu diote zigilu berriaren lehen emaitza egitea eta honek bueltan ska, disco dub, reggae, ragga eta break ukituez jositako bilduma lana bidali die. Aukeraketan The Wailers taldea topa dezakegu esate baterako, rock-steady itxurako ariketa bizi batekin. Horrez gain bada El Malo japoniarraren dub-beat lanen eta eskandinabiar dub doinuen eredu bikainik ere, Bjorn Torske sortzailearen eskutik azken hauek. Bidean Reggie Stepa eta Ninjaman & Flourgon-en ragga-dancehall fina eta amaitzeko Dry & Heavy-ren dub pozointsua. CD hau musika kolekzionatzaile amorratu baten gustuen ispilu egokia izan daiteke, dub doinuen sustrai zabalak ondo ezagutzen eta hobeto ikertzen dituenaren urratsen gida. Bere lehendabiziko lanetatik Mr Scruff beti azaldu zaigu Erresuma Batuan dauden sortzaile freskoenen artean. Azken ekarpen honen ondoren gainera aparteko gaitasuna ezguitu diogu dj eta selektor lanetan.

